**ERRONKARIBARKO BATZORDE NAGUSIAK 2025EKO BIGARNABENTUAREN 30EAN EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

2025eko bigarnabentuaren 30eko 18:00etan, Erronkaribarko etxean, Batzorde Nagusiak ezohiko osoko bilkura egin du, Asier Gil Artuch idazkaria bertan izanik eta Amparo Viñuales Gale Erronkariko Aiza Bulguko alkatea Batzordeburu izanik.

Gainerako hirien izenean ordezkari hauek bertaratu dira:

UZTARROZE: Belen Marko Indurain
IZABA: Carlos Anaut Abadia eta Pedro Pilart Mainz
URZAINKI: Tomas Urzainqui Mina eta Juan Carlos Urzainqui Salvoch
GARDE: Jose Javier Echandi Sarries eta Daniel Palacios Artaso
BIDANKOZE: Tomas Pasquel Ayechu
BURGI: Marta Zudaire Aznarez eta Paula Urzainqui Recari

Batzordeburuak bilkura hasi eta gai-zerrendari jarraiturik honako erabaki hauek hartu dira:

1. ARTZAIN ESKOLAREN 2025EKO JARDUERAK

Eneko Egiguren Ruizek Artzain Eskolak egindako jarduerak azaldu ditu. Iaztik abian jarritako ekimenak aletu eta Gidari elkartea osatzen duen egungo taldea aurkeztu du, proiektua abiarazteaz arduratzen ari dena. Hauek dira: Eneko Egiguren bera, Jose Berrot albaitaria eta Alba Ripodas abeltzain, biologo eta irakaslea. Aurreratu du aurten 50 m²-ko prestakuntza-gela bat eta 12 m²-ko bulego bat izatea aurreikusten dela Erronkariko eskola zaharrean.

2025ean hiru enpresarekin egindako prestakuntza-pilulak zerrendatu ditu: soldadurari buruzko oinarrizko ikastaroa (eskari handia zegoen), gazten analisi sentsoriala, gazta urdina egitea (parte-hartze handia izan zen) eta abeltzaintza-digitalizazioari buruzko ikastaroa. Tutore-

**ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DE LA JUNTA GENERAL DEL VALLE DE RONCAL CELEBRADA EL DÍA 30 DE DICIEMBRE DE 2025**

En la villa de Roncal, en la Casa del Valle, siendo las 18:00 horas del día 30 de diciembre de dos mil veinticinco, con asistencia del Secretario D. Asier Gil Artuch y bajo la Presidencia de la alcaldesa de la Villa de Roncal Dña. Amparo Viñuales Galé, se reúne la Junta General del Valle de Roncal, en sesión extraordinaria, concurriendo por las demás villas la representación siguiente:

UZTARROZ: Dña. Belen Marko Indurain
ISABA: D. Carlos Anaut Abadía, D.Pedro Pilart Mainz
URZAINQUI: D. Tomas Urzainqui Mina, D. Juan Carlos Urzainqui Salvoch
GARDE: D. José Javier Echandi Sarriés, D. Daniel Palacios Artaso.
VIDANGOZ: D. Tomas Pasquel Ayechu
BURGI: Dña. Marta Zudaire Aznarez, Dña. Paula Urzainqui Recari

1º.- EXPOSICIÓN DE LAS ACTUACIONES REALIZADAS EN EL AÑO 2025 POR LA ESCUELA PASTORES.

D. Eneko Egiguren Ruiz expone las actuaciones realizadas por la Escuela de Pastores. Informa que desde el pasado año se han puesto en marcha diversas iniciativas y se presenta el equipo actual que forma la asociación Gidari, la cual está trabajando para poner en marcha este proyecto: Eneko Egiguren, el veterinario de zona José Berrot y Alba Ripodas, ganadera del Valle, bióloga y docente. Para este año se prevé contar con un aula formativa de 50 m² y una oficina de 12 m² en las antiguas escuelas de Roncal.

Se detallan las píldoras formativas ya realizadas este año 2025: curso básico de soldadura (con gran demanda), análisis sensorial de quesos para comercialización, elaboración de queso azul (con amplia participación) y curso sobre digitalización ganadera, impartido por tres empresas. El curso de tutores ganaderos no pudo realizarse

abeltzainen ikastaroa ez zen antolatu izen-emate nahikorik egon ez zelako, baina interesa dago.

Erdi-mailako prestakuntza-ibilbidea aurkeztu du. Guztira, 9 modulu eta 700 ordurik gora izanen dira. Gai hauek hartuko ditu barne: oinarrizko albaitaritza, artzaintza, instalazioak, ekoizpen-sistemak, esnea eraldatzea, izapidetzea eta instalazio-prozesuak, ENP-PAC, trebetasun emozional eta sozialak, berdintasuna, eta praktikak ustiategietan eta mendian. Teoria, prestakuntza-bisitak eta praktikak uztartuko dira. Prestakuntzak urriaren 30etik ekainaren 30era arte iraunen du, gutxi gorabehera.

Aurtengo beste jarduera batzuen berri ere eman du: abeltzaintzako esperientziak bisitatzea (Zunbeltz eta Aragoiko Artzaintza Eskola), hiru hitzarmen sinatzea (Erronkariko Aiza Bulguarekin, Erronkaribarko Batzordearekin eta Nafarroako Gobernuarekin) eta abeltzaintzarekin lotutako Estatuko topaketa eta biltzarretan parte hartzea.

2025eko balantze ekonomikoari dagokionez, jakinarazi du Nafarroako Gobernuak 62.000 € agindu zituela Artzain Eskolarentzat (25.000 funtzionamendurako, 25.000 inbertsioetarako eta 12.000 zuzenketa izendun baten bidez), eta horietatik % 75 inguru erabili dela (45.000 euro). Batzorde Nagusiak, hitzarmen bidez, 10.000 € eman ditu altzarietarako, eta 500 € jaso dira jardueren kuotekin.

2026an, irakasle-taldea antolatzen amaituko da, prestakuntza-pilulak eskainiko dira eta ikastaro nagusia garatuko da. Ikastaroak 5.000 € inguruko kostua izanen du ikasle bakoitzarentzat, eta zenbait ordainketa-aukera aztertzen ari dira. Caja Rural-ekin hitz egiten ari dira, ikasleentzako bekak lortzen saiatzeko. Berezko titulua izanen da, gaur egun Estatuan arautu gabe baitago. Lehen promozio honetan 8 ikasleko aurreikuspena egin da, eta, haiei ostatu emateko, Erronkarin Aiza Bulguaren

por falta de inscripciones suficientes, aunque existe interés.

Se presenta el itinerario formativo equivalente a un grado medio, con 9 módulos y más de 700 horas, incluyendo veterinaria básica, pastoreo, instalaciones, sistemas de producción, transformación láctea, tramitación y procesos de instalación, PAC, habilidades emocionales y sociales, igualdad y prácticas en explotaciones y puerto. El calendario previsto abarcaría aproximadamente del 30 de octubre al 30 de junio, combinando teoría, visitas formativas y prácticas.

Se informa de otras actuaciones realizadas: visitas a experiencias ganaderas (Zunbeltz, Escuela de Pastoreo de Aragón), firma de tres convenios (Ayuntamiento de Roncal, Junta y Gobierno de Navarra) y participación en encuentros y congresos estatales relacionados con la ganadería.

En cuanto al balance económico del año 2025, se informa que, el Gobierno de Navarra ha aportado 45.000 € (25.000 funcionamiento, 25.000 inversión y 12.000 mediante enmienda nominativa), ejecutado el 75% aproximadamente. La Junta General del valle de Roncal, mediante la firma del convenio ha aportado 10.000 € para mobiliario y se han recaudado 500 € por inscripciones a las píldoras formativas.

Respecto a 2026, se prevé acabar de organizar la estructura docente, mantener las píldoras formativas y desarrollar el curso principal. Se dice que el curso tendrá coste para el alumnado ya que se estima un coste por alumno/a y curso de entorno a 5.000 €. Se estan valorando diferentes opciones de pago manteniendo también conversaciones con Caja Rural para tratar de obtener becas para alumnos/as. Será un título propio, no reglado actualmente en el Estado. Se estudia posible alojamiento mediante rehabilitación de vivienda municipal en Roncal y se estima una primera promoción de 8 alumnos.

etxebizitza bat birgaitzeko aukera aztertzen ari da.

Azkenik, LoRa sarearekin lotutako proiektua azaldu da. Antena bidezko komunikazio-sare bat da hainbat aplikazio ahalbidetzen dituena, hala nola ganadua kontrolatzea, pertsonak zenbatzea eta askak monitorizatzea, besteak beste. Hori azaltzeko bilera bat egitea aztertuko da, gai sakona eta mardula baita.

2. 2025EKO AURREKONTU-ALDAKETAK

Gauzatutako aurrekontua ikusita, aurrekontu-aldaketa hauek egitea proposatu da, diruzaintzako gerakin likidoaren kargura:

- 1.2311.1300003 kontu-saila. Administrari laguntzailearen ordainsaria: 4.500,00 € gehitzea.
- 1.2311.1600000 kontu-saila. Gizarte Segurantza: 2.750,00 € gehitzea.
- 1.2311.2279901 kontu-saila. Gizarte hezkuntza eta berdintasun programa: 10.000 gehitzea.
- 1.2318.6230000 kontu-saila. Gizarte larrialdiko etxebizitzan berokuntza jartzea: 12.897,66 €gehiago.
- 1.3231.1300000 kontu-saila. Haur hezitzaileen ordainsaria: 3.500 € gehitzea.
- 1.3231.1600000 kontu-saila. Haur hezitzaileen Gizarte Segurantza: 2.000 € gehitzea.
- 1.3231.2210500 kontu-saila. Haur eskolako janariaren hornidura: 4.500,00 € gehitzea.
- 1.4121.1300000 kontu-saila. Mankomunitateko basozainaren ordainsaria: 650,00 € gehitzea.
- 1.4121.1600000 kontu-saila. Mankomunitateko basozainaren Gizarte Segurantza: 350 € gehitzea.
- 1.4121.6090001 kontu-saila. Baso-jarduketak eta -hobekuntzak: 28.000,00 € gehitzea.
- 1.4121.6090002 kontu-saila. Abeltzaintza-jarduketak eta -hobekuntzak: 14.000,00 € gehitzea.

Finalmente, se explica el proyecto relacionado con la red LoRa, una red de comunicación basada en antenas que permite distintas aplicaciones como control de ganado, conteo de personas o monitorización de abrevaderos entre otras muchas opciones. Se valora la posibilidad de mantener una reunión para explicar en profundidad este asunto ya que es muy extenso.

2º.- MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS AÑO 2025.

A la vista del presupuesto ejecutado se proponen las siguientes modificaciones presupuestarias con cargo al remanente líquido de tesorería:.

- Partida 1.2311.1300003 Retribución Auxiliar Administrativa: aumento de 4.500,00 €
- Partida 1.2311.1600000 Seguridad Social: aumento de 2.750,00 €
- Partida 1.2311.2279901 Programa educación social e igualdad: aumento de 10.000,00 €
- Partida 1.2318.6230000 Instalación calefacción piso emergencia: aumento de 12.897,66 €
- Partida 1.3231.1300000 Retribución Educadores/as Infantiles: aumento de 3.500,00 €
- Partida 1.3231.1600000 Seguridad Social Educadores/as Infantiles: aumento de 2.000,00 €
- Partida 1.3231.2210500 Suministro comida escuela infantil: aumento de 4.500,00 €
- Partida 1.4121.1300000 Retribución guarda mancomunidad: aumento de 650,00 €
- Partida 1.4121.1600000 Seguridad Social guarda Valle: aumento de 350,00 €
- Partida 1.4121.6090001 Mejoras y actuaciones forestales: aumento de 28.000,00 €
- Partida 1.4121.6090002 Mejoras y actuaciones ganaderas: aumento de 14.000,00 €
- Partida 1.9200.1200000 Retribución Secretario: aumento de 3.750,00 €

- 1.9200.1200000 kontu-saila. Idazkariaren ordainsaria: 3.750,00 € gehitzea.
- 1.9200.1310000 kontu-saila. Administrari laguntzailearen ordainsaria: 3.600 € gehitzea.
- 1.9200.1600000 kontu-saila. Zerbitzu orokorretako Gizarte Segurantza: 4.550,00 € gehitzea.
- 1.9200.2210001 kontu-saila. Kamineroen etxeko elektrizitatearen hornidura: 2.200 € gehitzea.
- 1.9200.2210300 kontu-saila. Gasolioaren hornidura: 900 € gehitzea.
- 1.9430.2263000 kontu-saila. Banku-zerbitzuak eta -komisioak: 200,00 € gehitzea.
- 1.9420.7622000 kontu-saila. Pirinioetako zahar-etxea: 50.000 € gehitzea.

Guztira, aurrekontu-aldaketen zenbatekoa 149.176,23 eurokoa da, eta diruzaintzako gerakin likidoaren kargura finantzatuko da osorik, zenbateko horretako diru-sarrera gisa alta ematen baitzaio.

Aldaketa horiek egiteko arrazoien berri eman da: Ordainsarien eta Gizarte Segurantzaren kontu-sailak handitu dira, gauzatutako aurrekontu metatuaren eta onartutako % 2,5eko ordainsari-igoeraren ondorioz; gizarte hezkuntza eta berdintasun programa indartu da, exekuzio-maila handia zuelako; gizarte larrialdiko etxebizitzan berokuntza jartzeko kreditua sortu da, hasiera batean behar hori aurreikusita ez zegoelako; haur eskolako janariaren horniduraren kreditua handitu da, haur gehiago daudelako eta kostuak handitu direlako; eta kamineroen pisuko elektrizitatearen eta juntetxeko gasolioaren kontu-sailak handitu dira, kreditu erabilgarri nahikorik ez zegoelako. Era berean, Pirinioetako zahar-etxea berritzearen gastua 2025eko ekitaldira ekarri, aitortu eta ordaintzeko kontu-saila eratu da, Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko Departamentuak hala aginduta. Basogintzarako eta abeltzaintzarako kontu-sailak ere handitu dira, beharrezkotzat jo

- Partida 1.9200.1310000 Retribución auxiliar administrativa Junta: aumento de 3.600,00 €
- Partida 1.9200.1600000 Seguridad Social servicios generales: aumento de 4.550,00 €
- Partida 1.9200.2210001 Suministro energía eléctrica piso camineros: aumento de 2.200,00 €
- Partida 1.9200.2210300 Suministro gasóleo calefacción: aumento de 900,00 €
- Partida 1.9430.2263000 Servicios bancarios y comisiones: aumento de 200,00 €
- Partida 1.9420.7622000 Residencia de ancianos del Pirineo: aumento de 50.000,00 €

El importe total de la modificación asciende a 149.176,23 €, financiándose íntegramente con cargo al remanente líquido de Tesorería, que se da de alta como ingreso por dicho importe.

Se informa de las razones por las que se hace necesaria estas modificaciones. Se incrementan partidas de retribuciones y Seguridad Social debido a la ejecución acumulada y al incremento retributivo aprobado del 2,5 %, se refuerza la partida del programa de educación social e igualdad por su elevado grado de ejecución, se crea crédito para la instalación de calefacción en el piso de emergencia social al no estar prevista inicialmente esta necesidad, se aumenta el crédito del suministro de comida de la escuela infantil por mayor alumnado y aumento de costes, y se incrementan las partidas de energía eléctrica y gasóleo del piso de camineros por insuficiencia del crédito disponible. Asimismo, se crea la partida para el pago de la reforma de la Residencia de Ancianos del Pirineo, trasladando su reconocimiento al ejercicio 2025 por indicación del Departamento de Administración Local del Gobierno de Navarra. Se incrementan igualmente las partidas destinadas a mejoras y actuaciones forestales y ganaderas, al haberse considerado necesarias para el adecuado

baita jarduera behar bezala garatzeko eta lurraldea kudeatzeko.

Azalpenak entzun ondoren, proposatutako aldaketak aho batez onetsi dira.

3. PISTAK ERABILTZEAGATIK 2020KO TASEN ZORRAK DEUSEZTATZEA

Pistak erabiltzeagatik kobratzeke dauden 2020ko tasen egoeraren berri eman da. Aho batez onetsi da zor horiek programa informatikoan baliogabetzea, une honetan ezinezkoa baita erreklamatzea.

Azaldu da pixkanaka gai horren gaineko kontrola hobetzen ari dela; benetan zenbat pertsona dauden alta emanda, txartela ote duten eta tasa ordaintzen duten. Espero da epe ertainean egoera erabat erregularizatuta egonen dela eta urteko ez-ordaintzeak erreklamatu ahal izanen direla. Aipatu da programan erregistratutako zorra 40.000 euro ingurutik 10.000 euro ingurura jaitsi dela, eta, neurri horrekin, 2.190 euro ingurura iristea espero dela.

Erabaki da alta emanda dauden pertsona guztiei berriz ere gutun bat eta dagokion ordainagiria bidaltzea, bai eta ordaintzeke dituen tasak ere, kasua bada. Erabiltzaile bakoitzari gogoraraziko zaio baja eskatu behar duela, zorrak sortzen jarraitzea nahi ez badu. Bestetik, nabarmendu da Batzordeak ez duela jakiterik inork pistak erabiltzeari utzi dion, ibilgailua saldu duen edo ez duen txartelik behar, horiek Batzordeari berariaz jakinarazten ez bazaizkio.

4. GIZARTE HEZITZAILE LANPOSTUA BETETZEKO DEIALDIA ONESTEA

Jakinarazi da gaur egun lanpostua hutsik dagoela eta Ane Almirantearena Saenz de Ugarte aldi baterako betetzen ari dela.

Aho batez onetsi dira Batzorde Nagusiko gizarte hezitzaile lanpostua

desarrollo de la actividad y la gestión del territorio.

A la vista de lo expuesto se aprueban las modificaciones propuestas por unanimidad.

3º.-ANULACIÓN DEUDAS TASA PISTAS AÑO 2020.

Se informa de la situación de las tasas pendientes de cobro por el acceso a las pistas forestales correspondientes al año 2020 y se aprueba, por unanimidad, su anulación en el programa informático, al resultar imposible reclamar dichas deudas en este momento. Se señala que, progresivamente, se está mejorando el control sobre las personas que realmente están de alta, disponen de tarjeta y abonan la tasa, de manera que a medio plazo se prevé tener la situación completamente regularizada y poder reclamar anualmente los impagos que se detecten. Se indica que la deuda registrada en el programa ha pasado de aproximadamente 40.000 euros a unos 10.000 euros y que, con esta medida, se espera reducirla en torno a 2.190 euros. Asimismo, se acuerda volver a remitir una carta a todas las personas que figuren de alta, adjuntando el recibo correspondiente y, en su caso, las tasas pendientes, recordándoles que es obligación de cada usuario solicitar la baja si no desea que se le sigan generando deudas. Se recuerda igualmente que la Junta no puede conocer si alguien deja de utilizar las pistas, vende el vehículo o deja de necesitar la tarjeta si no se comunica expresamente.

4º.- APROBACIÓN CONVOCATORIA PLAZA EDUCADOR/A SOCIAL.

Habiéndose trasladado las bases de la convocatoria propuestas para cubrir la plaza de educador/a social de la Junta General del Valle de Roncal mediante concurso-oposición., estas son aprobadas por unanimidad. Se informa que actualmente la plaza está vacante y que esta siendo cubierta temporalmente por Dña. Ane Almirantearena Saenz de Ugarte.

lehiaketa-oposizio bidez betetzeko deialdiaren oinarriak; oinarriok aldez aurretik igorri zitzaizkien ordezkari guztiei.

Burgiko Udalak ohartarazi du, Batzordearen plantilla organikoari jarraikiz, C1 euskara maila nahitaezkoa dela eta oinarrietan jarri behar dela. Gai hori deialdian zuzenduko da, eta Batzordearen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen araudia ere aipatuko da, gizarte hezitzaileari dagozkion eginkizunak ezagut daitezen. Azterketa maiatzaren amaieran edo garagarzaroan eginen da.

5. GIZARTE LANGILEAREN ESKAERA, LANPOSTUAREN ORDAINSARI OSAGARRIARI BURUZKOA

Maria Jesus Mandacen Elizalde gizarte langilearen idazkia irakurri da. Horren bidez, bere lanpostuaren berariazko osagarria % 34,88tik % 37,61era igotzeko eskatu du, atzeraeraginezko ondorioekin, Batzordeak eta Nafarroako Gobernuak oinarrizko gizarte zerbitzuetarako soldata kostuaren erreferentzia gisa sinatutako urteko gehigarrian oinarri hartuta.

Txosten juridikoa aztertu ondoren, Batzordeak erabaki du gehigarri hori finantza-erreferentzia baino ez dela, ez duela izaera arau-emailerik edo loteslerik. Batzordearen eskumen esklusiboa da bere langileen ordainsariak finkatzea, eta ez dago erreklamatutako eskubidearen berariazko aitorpenik, ezta eskubide hori finka dezakeen aplikazio jarraiturik ere, eta ez dagokio atzeraeraginik, ez baitago eskubide hori babesten duen barne-araurik edo aurretiazko administrazio-egintzarik.

Ondorioz, Batzordeak erabaki du osagarria % 34,88an uztea. Adostu da, etorkizunean aldaketarik eginez gero, Batzordearen egintza formalaren bidez izapidetu beharko dela, eta plantilla organikoan eta urteko aurrekontuan sartu beharko dela. Adierazi nahi izan da erabaki hori hartu dela gehigarrian jasotako erreferentziak berez ez duelako aukerarik

Se advierte por parte del Ayuntamiento de Burgui, que de conformidad con la plantilla orgánica de la Junta, falta incluir como requisito el conocimiento de euskera, nivel C1, que será corregido en la convocatoria. Se incluirá también referencia a la normativa del SSB de la Junta para que se conozcan las funciones correspondientes del educador/a social. Se prevé que las pruebas se realicen a finales de mayo o junio.

5º.-SOLICITUD COMPLEMENTO PUESTO DE TRABAJO TRABAJADORA SOCIAL.

Se somete a consideración de la Junta la solicitud de María Jesús Mandacen Elizalde, trabajadora social, para incrementar el complemento específico de su puesto del 34,88 % al 37,61 % con efectos retroactivos, fundamentada en la adenda anual suscrita entre la Junta y el Gobierno de Navarra como referencia de coste salarial para los servicios sociales de base.

Tras el análisis del informe jurídico, la Junta acuerda que la adenda constituye únicamente una referencia financiera y no tiene carácter normativo ni vinculante, siendo competencia exclusiva de la Junta fijar las retribuciones de su personal. No concurren ni reconocimiento expreso del derecho reclamado ni aplicación continuada que pudiera consolidarlo, y no procede la retroactividad al no existir norma interna ni acto administrativo previo que lo respalde.

En consecuencia, la Junta decide mantener el complemento vigente en el 34,88 % y acuerda que cualquier modificación futura deberá tramitarse mediante acto formal de la Junta e incorporarse a la plantilla orgánica y al presupuesto anual. Se hace constar que esta decisión se adopta atendiendo a que la referencia contenida en la adenda por sí sola no permite otorgar automáticamente el aumento solicitado.

6º.-APROBACIÓN CALENDARIO LABORAL AÑO 2026.

ematen eskatutako igoera automatikoki onartzeko.

6. 2026KO LAN-EGUTEGIA ONESTEA

Batzordeko langileen 2026ko lan-egutegiaren proposamenaren berri eman da, ordezkari sindikalarekin adostua. Horren arabera 1.592 lanordu eta 6 berreskuratu behar ez diren jaiegunak, oporrak, herriko jaiak eta tokiko jaieguna kenduta. Beraz, lanaldi osoa 7 ordu eta 22 minutukoa izanen da. Zaindariaren egunak Erronkari herrikoak izanen dira eta tokiko jaieguna bigarnabentuaren 26a.

Egutegia ikusita, Batzordeak aho batez erabaki du egutegia onestea, oporren, zaindariaren jaiegunen eta norbere kontuetarako egunen erregulazioari buruzko argibideekin eta eranskinekin batera. Egutegiaren berri emanen zaie Batzordeko langileei eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, jende orok jakin dezan. Egutegia bere espedientean artxibatu egin da.

7. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO AUZITEGIAN AURKEZTUTAKO ALEGAZIO-TXOSTENA BERRESTEA

Aurreko osoko bilkuran jakinarazi zen Tomas Urzainqui Minak eta Juan Carlos Urzainqui Salvochek, Urzainkiko batzordekideek, gora jotzeko errekurtsoa jarri zutela Mankomunitatearen araubidea arautzen duten ordenantzen aldaketa onestearen aurka. Orain jakinarazi da Jesus de Miguel Layanak ere gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu duela Nafarroako Administrazio Auzitegian, argudio eta eskaera berberekin. Azaldu da bi errekurtso horien aurkako alegazio-txostena egin dela, eta horretan Libertad Frances Lecumberrik laguntza eman duela. Alegazio-txostena batzordekideen eskura jarri da.

Batzordeak, Uztarroze, Izaba, Erronkari, Garde, Bidankoze eta Burgiko udalen aldeko botoarekin, erabaki du 25-01850 eta 25-02078 gora jotzeko

Se pone en conocimiento de la Junta el Calendario Laboral para el año 2026 del personal empleado, consensuado con la Delegada Sindical. En el citado calendario consta que corresponde trabajar 1.592 horas y que los días laborables son 216, descontadas las fiestas de carácter retributivo y no recuperables, las vacaciones, la fiesta local y fiestas patronales. Así pues, la jornada completa será de 7 horas y 22 minutos. Los días patronales serán los de la villa de Roncal y la festividad local el día 26 de diciembre.

La Junta, a la vista del Calendario presentado, que queda archivado en el expediente de su razón, acuerda aprobarlo junto con las aclaraciones y anexos que se adjuntan, sobre la regulación de las vacaciones, fiestas patronales y asuntos propios. El calendario se notificará al personal de la Junta y se enviará al Boletín Oficial de Navarra para general conocimiento.

7º.- RATIFICACIÓN DEL INFORME DE ALEGACIONES PRESENTADO ANTE EL TRIBUNAL ADMINISTRATIVO DE NAVARRA.

Habiéndose informado en la anterior sesión del recurso de alzada interpuesto por los representantes de Urzainqui, D. Tomás Urzainqui Mina y D. Juan Carlos Urzainqui Salvoch, y puesto en conocimiento de los representantes que igualmente D. Jesús de Miguel Layana ha interpuesto recurso de alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra con idéntica argumentación y solicitud, se hace constar que frente a ambos recursos se ha elaborado informe de alegaciones, contando con el asesoramiento de Dña. Libertad Francés Lecumberri, el cual ha sido puesto a disposición de los representantes de la Junta.

La Junta, con el voto favorable de los Ayuntamientos de Uztárroz, Isaba, Roncal, Garde, Vidángoz y Burgui, acuerda ratificarse en el contenido del citado informe de alegaciones frente a los recursos de alzada 25-01850 y 25-02078 interpuestos contra la aprobación de la modificación de las Ordenanzas reguladoras del régimen de la Mancomunidad del Valle de Roncal.

errekurtsoen aurka jarritako alegazio-txostenaren edukia berrestea.

Urzainkiko Udalak adierazi nahi izan du ez dagoela ados erabakiarekin, eta aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa berretsi du.

8. BATZORDEBURUAREN ETA BATZORDEEN INFORMAZIOA

Babes Zibilari eta Ingurumenari buruzko bilera

Bilera egin zen suteak eta uholdeak aztertzeko. Baso-suteen aurrean jarduteko udal-planen (PAMIF) funtzionamendua azaldu zen, horien ardura aiza bulguena dena. Agenda-akats bat dela eta, Ingurumeneko Departamentua ezin izan zen bertaratu, beraz, basogintzarekin eta ibaien garbiketarekin lotutako gaiak ia ez ziren landu. Nafarroako Gobernuak kezka agertu zuen lehorteagatik eta neurriak ezartzeko beharra mahairatu zuen. Erabaki zen beste bilera bat deitzea, ukitutako departamentu guztiekin koordinatuta.

Bio4res bilera Ezkarozen

Eskualdeko proiektu pilotua aurkeztu zen, Nafarroako Pirinioetan biomasa kudeatzeko lurralde-nodo baten bideragarritasunari buruzkoa (Interreg SUDOE BIO4RES). Jakinarazi zen Nafarroako Gobernuaren 2026ko aurrekontuetan kontu-saila izendun bat dagoela Izizeko industrialdean lurra erosteko eta biomasa lehortzeko eta metatzeko nabea eraikitzeko. Azterlanaren edukiak azaldu ziren. Gai horren inguruan bilera gehiago izanen dira.

Bardeak

Bi bilera egin dira: lan-bilera bat, bigarnabentuaren 15ean, eta Batzar Nagusia, bigarnabentuaren 29an. 2024ko aurrekontuko itxieraren berri eman zen: % 57 gauzatuta eta 41.000.000 euroko gerakin metatua. 2025eko zenbait aurrekontu-aldaketa onetsi ziren: Abeltzaintzako

Asimismo, se hace constar que el Ayuntamiento de Urzainqui manifiesta su disconformidad con dicho acuerdo y se ratifica en el recurso de alzada presentado por dicha entidad.

8º.- INFORMACIÓN DE PRESIDENCIA Y COMISIONES

Reunión Protección Civil y Medio Ambiente

Se mantuvo reunión para tratar incendios e inundaciones en el Valle. Se explicó el funcionamiento de los Planes de Actuación Municipal ante Incendios Forestales (PAMIF), cuya responsabilidad corresponde a cada ayuntamiento. Medio Ambiente no pudo asistir por error de agenda, por lo que apenas se trataron aspectos forestales y limpieza de ríos. Desde Gobierno de Navarra se trasladó preocupación por la sequía y la necesidad de valorar medidas. Se acordó convocar una reunión más completa y coordinada con todos los departamentos implicados.

Reunión Bio4res en Ezcaroz

Presentación del proyecto piloto comarcal para estudiar la viabilidad de un nodo territorial de gestión de biomasa en el Pirineo Navarro dentro del marco Interreg SUDOE BIO4RES. Se informó de la aprobación en presupuestos 2026 de una partida nominativa para la compra de terreno y construcción de nave de secado y acopio en el polígono de Iziz. Se revisaron los contenidos del estudio y se informa que habrá más reuniones al respecto.

Bardenas

Celebradas dos reuniones: una reunión de trabajo previa (15 diciembre) y la Asamblea General (29 diciembre). Se informó del cierre 2024 con un 57% ejecutado y un remanente acumulado de 41.000.000€. Se aprobaron modificaciones presupuestarias 2025 ligadas a infraestructuras ganaderas, centros informativos de Fustiñana y Carcastillo, arreglo de pistas, y partida para

azpiegiturak, Fustiñanako eta Carcastilloko informazio-zentroak, pistak konpontzea eta LIFE funtsak itzultzeko kontu-saila (700.000 €), gauzatu gabeko dirulaguntza batengatik. 2026ko aurrekontua aurkeztu eta onetsi zen: 20.195.000 euro. Mankomunitatea osatzen duten erakundeei 550.000 euroko transferentzia eginen zaie. Batzordeak aurrekontuaren alde bozkatzen ohi du; aurten Zaraitzu abstenitu zen. Proposatu da hurrengo urteetan dokumentazioa aldez aurretik izatea, Batzordeak hori aztertu eta botoa adosteko.

Pax Avant – Ondarea

Bigarnabentuaren 18an Nafarroako Gobernuarekin bilera bat egin zen dauden aitorpen aukerak eta horiek lortzen saiatzeko zer egin behar den ezagutzeko: Ondare Unibertsala, Kultur Ondare Immateriala eta Europako Ondarearen zigilua. Urtarrilaren 10ean, neskanegunean, 11:00etan, bilera eginen da Erronkaribarko etxean, gaia aztertzen jarraitzeko.

Larreen antolamendurako Plana

Nafarroako Gobernuarekin bilera bat eginen da zenbait abeltzainek egin behar dituzten ekarpenak argitzeko eta planak aurrera egiteko, hurrengo osoko bilkuran onetsi ahal izateko.

Batzordeen funtzionamendua

Gogorarazi da batzordeen funtzionamenduari buruzko ordenantza bat badagoela (2009ko garilean onetsita) eta dagokion batzordeak berrikusi behar duela. Azpimarratu da garrantzitsua dela Batzordea osatzen duten pertsona guztien artean errespetuzko jarrera egotea, eta ez dela onartzen inongo komunikazio-modu desegokirik.

Haur eskolako gurasoekin bilera

Haur eskolako gurasoekin bilera bat egin da Erronkaribarko Etxea birgaitzeko obrak direla-eta eskola behin-behinean lekuz aldatzearen egoeraren berri emateko.

devolución de fondos LIFE (700.000€), por una subvención no ejecutada. Se Presentó presupuesto 2026 por 20.195.000€, con transferencia a congozantes de 550.000€. Se recuerda que tradicionalmente esta junta vota a favor; este año Salazar se abstuvo. Se propone para próximos ejercicios disponer de documentación con antelación para trabajarlo en comisión y consensuar voto. Finalmente se aprobó el presupuesto.

Pax Avant – Patrimonio

Se informa de la reunión mantenida el 18 de diciembre con Gobierno de Navarra para conocer las diferentes opciones de reconocimiento existentes y lo que supone intentar obtener cada uno de estos reconocimientos: Patrimonio Universal, Patrimonio Cultural Inmaterial y sello de Patrimonio Europeo. El 10 de enero sábado a las 11:00 habrá reunión en la Junta para seguir tratando el tema.

Plan de Pastos

Se informa de que está pendiente nueva reunión con Gobierno de Navarra para aclarar aportaciones que algunos ganaderos han dicho que van a hacer al plan presentado y poder avanzar hacia aprobación en próxima junta.

Funcionamiento de Comisiones

Se recuerda la existencia de la Ordenanza de funcionamiento de comisiones aprobada en julio de 2009 y la necesidad de revisarla en la comisión correspondiente. Se insiste en la importancia del respeto entre todas las personas que forman parte de Junta y comisiones, no tolerándose formas inadecuadas de comunicación, ni verbales ni no verbales.

Reunión con padres y madres de la escuela infantil.

Se informa que se ha mantenido una reunión con los padres y madres de la escuela infantil con el fin de trasladarles la situación

Hainbat aukera aztertzen ari dira, eta ukitutako familiekin irtenbidea adosten saiatuko da.

Espartza eta Bidankozeren arteko muga berrikustea

Tomas Pasquelek jakinarazi du Espartza eta Bidankozeren arteko muga berrikusi dela. Horren emaitza bidaliko da behin betiko dokumentazioa dagoenean.

9. GALDE-ESKEAK

Burgiko Aiza Bulguak zenbait larreren enkantea egiteko aurkeztutako eskaeraren berri eman da. Hona hemen:

1. lotea: Basariko egutera, Izalorrako eta Basariko zaltuak, Litobaseko eta Sebinzeko sailak, Batxa eta Sitxea; 700 euro. Izalorrako eta Basariko zaltuak kanpaldietarako erabiliko dira garagarzarotik agorrilera bitartean, eta esleipendunak erabilera hori errespetatu beharko du.
2. lotea: Larra eta Sasi
3. lotea: Betatu berria eta Santa Lucia
4. lotea: Las Coseras.

Horren jakinarazpena posta elektroniko bidez egin da, baina eskaera formala aurkeztuko da instantzia bidez. Idazkariak enkantearen bideragarritasunari buruzko informazioa emanen du, indarrean dauden ordenantzekin bat.

Burgiko Aiza Bulguak Los Sotoseko zubiaren eremuan abereentzako kanadar pasabide bat jartzeko aukeraren inguruan galdetu du. Zalantza du Batzordeak edo Aiza Bulguak izapidetu behar ote duen. Azaldu da, pista Aiza Bulguarena bada, Aiza Bulguari dagokiola hori jartzeko erabakia hartzea, eta Batzordeak ez duela eragozpenik jarriko, nahiz eta eskaeran ez den agertzen puntu zehatza.

Burgiko Aiza Bulguak zenbait biztanlek etxerako egur-sorten banaketari buruz egindako kexak azaldu ditu. Kexak izan dira emandako egurraren kantitateagatik eta kalitateagatik eta

relativa al posible traslado provisional del centro con motivo de las obras de rehabilitación de la Casa del Valle. Se señala que se están estudiando distintas alternativas y que se procurará alcanzar una solución consensuada con las familias afectadas.

Revisión de la muga entre Esparza y Vidangoz.

Asimismo, D. Tomás Pasquel informa que se ha procedido a la revisión de la muga entre Esparza y Vidángoz y que, una vez se disponga de la documentación definitiva, se remitirá la información correspondiente sobre el resultado de dicha revisión.

9º.-RUEGOS Y PREGUNTAS.

Se da cuenta de la solicitud formulada por el Ayuntamiento de Burgui para proceder a la subasta de los siguientes lotes de pastos:Lote 1: Solano de Basari, Sotos de Izalorra y Basari, Plantío de las Litobas, Plantío de Sevince, Bacha y Sichea, tasado en 700 euros, haciendo constar que los Sotos de Izalorra y Basari en los meses de junio a agosto se destinarán a la utilización de campamentos, debiendo el arrendatario respetar dicho uso; Lote 2: Larra y Sasi; Lote 3; Vedado Nuevo y Santa Lucía; Lote 4: Las Coseras. Se indica que actualmente existe comunicación por correo electrónico, pero se solicitará la presentación formal mediante instancia, y el Secretario informará sobre la viabilidad de la subasta conforme a las ordenanzas vigentes.

El Ayuntamiento de Burgui plantea igualmente duda respecto a la posibilidad de instalar un paso canadiense en la zona del puente hacia Los Sotos, desconociéndose si corresponde tramitarlo la Junta del Valle o el propio Ayuntamiento. Se expone que si la pista es de titularidad municipal corresponde al Ayuntamiento la decisión, sin que la Junta tenga objeción alguna si dicho Ayuntamiento decide ejecutarlo, si bien no se conoce con exactitud el punto concreto al que se refiere la solicitud.

banaketaren ordainagiri edo egiaztagiri faltagatik. Eskatu du Batzordeko basozainak egur-sortak neur ditzan, antzemandako aldeak argitzeko eta benetan jasotako egurra kobratzeko. Batzordeak azaldu du Alberto Salvadorrek egindako banaketa gaizki-ulertu baten ondorio izan zela, uste baitzuen egur-sorta guztiak banatu behar zituela, eta ez soilik banakako erauzketakoak. Egoeraren berri izan ondoren, banaketa horiek bertan behera uzteko agindu zen. Azkenean, zazpi egur-sorta banatu ziren gaizki.

Batzordeko basozainari eskatuko zaio egur-sorten neurketak egitera joateko. Dena den, ohartarazi da neurketa ez dela ez erraza ez zehatza izanen, egur-sorta horiek dagoeneko ebakita eta pilatuta baitaude. Gogorarazi da sorten kalitatea eta bolumena alda daitezkeela, eta aipatu da, desadostasunik egonez gero, hobe dela erreklamazioak banaketaren unean egitea, eta ez hilabete batzuk geroago, lanak kobratu behar direnean. Azkenik, erabaki da datorren urtetik aurrera egurketariari eskatzea banaketa justifikatzen duten tiketak eman ditzan.

Gai-zerrendatik kanpo eta presakotzat jo ondoren, honako gai hauek aztertu dira:

Toki erakundeen arteko Hitzarmenari atxikitzea, euskara teknikariak aldi baterako kontratatzeko zerrendak egiteko hautaketa prozesuak kudeatzeko.

Burlatako Udalak euskara teknikarien aldi baterako kontrataziorako zerrendak egiteko hautaketa prozesuak kudeatzeko toki erakundeen arteko hitzarmenari atxikitzeko proposamena bidali du. Aurkeztutako testuari eragozpenik jarri ez zaionez, Batzordeak aho batez erabaki du aipatutako hitzarmenari atxikitzea.

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 19:15ean Batzordeburuak bilkura amaitu du, eta honako akta hau idatzi da.

El Ayuntamiento de Burgui traslada asimismo quejas vecinales relativas al reparto de leña de hogar, tanto por la cantidad como por la calidad de la madera entregada, así como por la ausencia de recibos o justificantes del reparto, solicitando que el guarda del Valle proceda a medir la leña ya entregada a fin de ajustar el cobro a la madera realmente recibida y que se aclaren las diferencias detectadas. La Junta informa que el reparto efectuado por D. Alberto Salvador se debió a un malentendido, al considerar que debía repartir la totalidad de los lotes cuando únicamente correspondía hacerlo respecto de aquellos solicitantes que habían optado por la modalidad de extracción individual. Una vez conocida la situación se ordenó suspender dichas entregas, quedando finalmente siete lotes repartidos de forma indebida.

Respecto a las mediciones, se solicitará al guarda del Valle, D. Pablo Fanlo, que acuda a medir los lotes, advirtiendo que al encontrarse ya cortados y apilados la medición no resultará sencilla ni exacta. Se recuerda que la calidad y volumen de los lotes puede variar y que, en caso de discrepancias, facilitaría mucho encontrar una mejor solución que las reclamaciones se trasladasen en el momento del reparto y no meses después, cuando se tiene que proceder al cobro de los trabajos. Finalmente, se encomienda al guarda del Valle realizar medición en la medida de lo posible y se acuerda que, a partir del próximo año, se exigirá al maderista la entrega de tickets justificativos del reparto.

Fuera del orden del día y previa declaración de urgencia se tratan los siguientes asuntos:

Adhesión al Convenio entre Entidades Locales para la Gestión de los Procesos de Selección destinados a la confección de listados para la contratación temporal de personal técnico de euskera.

Se traslada por el Ayuntamiento de Burlada propuesta para adherirse al Convenio entre Entidades Locales para la Gestión de los

Eta dagokion tokian jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin da, ontzat emana eta zigilua jarrita, eta ibarreko Aiza Bulguei bidali zaie, iragarki-oholetan jar dezaten.

Erronkarin, 2026ko urtarrilaren 12an

Procesos de Selección destinados a la confección de listados para la contratación temporal de personal técnico de euskera. No habiendo ninguna objeción al texto presentado, la Junta acuerda por unanimidad la adhesión al citado convenio.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las diecinueve horas y quince minutos del día señalado al inicio, por la Sra. presidenta se levanta la sesión, redactándose la presente Acta.

Y para que conste donde proceda, se expide la presente certificación, Visada y Sellada, y se envía a cada uno de los Ayuntamientos del Valle, para su exposición en el Tablón de Anuncios, en Roncal a 12 de enero de dos mil veintiseis.